

# GERNIKAKO BONBARDAKETAREN

## 80. URTEURRENA

### ZER ERAGIN IZAN DU KULTURAN?

**BERNARDO ATXAGA:**  
"Oso zaila da tragediei  
buruz idaztea kanpotik"

10-12



**ELAI-ALAI**  
Dantza taldetik  
harago

6-7



**GUERNICA**  
Eta beste artelan  
batzuk

3-5



**EÑAUT ELORRIETAK**

"Gernikan" kanta  
hizpide

16-17





**03 ARTEA** PICASSORENAK EZ DIREN GUERNICA-K

**06 DANTZA** ELAI-ALAI, DANTZA TALDETIK HARAGO

**08 LITERATURA** LITERATUR IKONORIK GABEKO GERTAERA

**10 BERNARDO** ATXAGARI ELKARRIZKETA


**13 ZINEMA** PANTAILA HANDIAK BADU ZEREGIN SOZIALA

**15 ZINEMA** KRITIKA: *GERNIKA (2016)*

**16 MUSIKA** EÑAUT ELORRIETARI ELKARRIZKETA

**18 ANTZERKIA** GERNIKA HIRIA 1937RA ITZULTZEN DEN EGUNA

**20 KRONIKA** APIRILAREN 26A, BONBARDAKETAREN 80. URTEURRENA



**Testuak:** Ainhoa Iglesia

**Diseinua:** Ainhoa Iglesia

**Inprimaketa:** PrintHaus





ARG.: Museo Reina Sofia

## Picassorenak ez diren Guernica-k

*Pintore malagarraren maisulana ez ezik, Gernikako bonbardaketa oinarri duten beste obra esanguratsu batzuk ere aztertu dizkigu Ismael Manterola arte adituak*

Ukaezina da *Guernica* koadroak izan duen eragina, eta saihetsezina da bonbardaketa artearekin lotzean obra hori burura etortzea. 1937ko urtarrila zen Pablo Picasso pintore malagarrak Guda Zibilaren inguruko koadro bat egiteko enkargua jaso zuenean. Parisen bizi zen, jada margolari ezaguna zen, eta ideologikoki hurbilekoa zuenez gero, Bigarren Errepublikako Gobernuak Parisko Nazioarteko Erakusketan ikusgai jartzeko artelan bat eskatu zion. Picassok agindua onartu zuen baina inspirazio handirik gabe ibili zen hilabete luzez, zer

margotu jakin gabe. Maiatza iritsi zen, Maiatzaren Lehena, eta urtero bezala Langilearen Eguna ospatu zen Parisen manifestazio batekin. 1937 horretan, manifestazioak Gernikako bonbardaketa gogoan izan zuen, eta erasoaren aurkako elkarretaratzea izan zen. Picasso, manifestazioan zela, gertaeraren larritasunaz ohartu zen, eta *L'Humanité* bezalako egunkariak irakurri ostean inspirazioa heldu zitzaion: Gernikako bonbardaketaren inguruan margotuko zuen.

80 urte igarota, *Guernica* gertaeraren ikono bihurtu da. Ismael Manterola Artearen Historiaren irakasle da EHUUn eta *Guernicaren* eragina bi aro ezberdinetan bereizi du: “Garaian bertan izan zuena, hasieran oso harrera txarra, eta egungoa, sinboloa”. New Yorkeko MoMa museoan egon ondoren, 1992tik dago Madrilgo Reina Sofia museoan. Aurten, gainera, Sabino Arana saria jaso du, “iraganeko sarraskiaren eta egungo bakearen irudi” izateagatik. Urteurrenaren harira, Reina Sofia museoak erakusketa berezi bat jarri du ikusgai, “Piedad y terror en Picasso. El camino a *Guernica*” deiturikoa.

Baina Picassorena ez da gaia jorratu duen lan bakarra, bai garai berean, eta bai gerora, beste artista batzuek Gernikako bonbardaketa izan dute inspirazio iturri. Artearen historian aditua den Ismael Manterolak honakoak nabarmentzen ditu “Picassorenak ez diren *Guernicak*” bezala:

### IRAKASLE, IKERTZAILE ETA ARTE KRITIKARIA

Zumaian jaio zen Ismael Manterola, 1966an. Egun Artearen Historiako irakasle da Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren fakultatean. Horrez gain, arte ikerlaria ere bada eta arte kritika egiten du “Berria” eta “Mugalarri” egunkarietan.

Ikasketaz historialaria da, eta bere doktorego tesia *Hermes eta bere garaiko euskal pintoreak* izan zen, 2006an argitaratua. Liburuak, aldizkari espezializatueterako artikulua eta ikerketak egin izan ditu.

ISMAEL MANTEROLA ISPIZUA



ARG.: Tabakalera.eu



ARG.: aiete.net

### AURELIO ARTETA, “Tríptico de guerra” (1937)

Bonbardaketaren urtekoa, gudaren gordintasuna irudikatzen du. Gernikan girotua dago eta hiru pieza ditu: ezkerrean frontea, erdialdean exodoa eta eskuman atzeguardia. Parisko Espainiako pabiloian Picassoren koadroa triptiko honengatik ordeztuta izateko ahaleginak egon zirela entzun izan da, baina ez zen hala izan. Ismael Manterolaren aburuz, pintura hau gerokoa da: “Artetak pintatu zuen Picassoren *Guernicaren* eraginaren ondorioz”. Irakasleak honakoa dio piztutako eztabaidaren inguruan: “Arteta garaiko euskal artistarik interesgarrienetarikoa bat zen, eta Eusko Jaurlaritzako batzuek pentsatu zuten berak ordezkatu behar gintuela Parisko Nazioarteko Erakusketan. Halere, Picassok ordezkatu gintuen, eta oso ondo gainera”.



ARG.: artecreha.com

### JOSE LUIS ZUMETA, “Homenaje al Guernica de Pablo Picasso” (1960. hamarkada)

1967an Euskal Pinturaren Saria irabazi zuen koadroak. 1970etik, ezezaguna da bere egonlekua. Manterolarentzat “memoria berreskurapena” da obra hau. “Eskoziako erakusketara baterako egin zuen, non Guernicaren bertsioak erakutsi ziren”, argitu du Manterolak. Gainera, Picassoren koadroaren berrinterpretazioen artean “ezagun eta hedatuena” izan dela adierazi du.

### LUIS QUINTANILLA, “Ama la paz, odia la guerra” (1938)

Bildumari “Beste Guernicak” deitu zitzaion, Bigarren Errepublikako Gobernuaren enkargua izan zelako (*Guernica* bezala) New Yorkeko 1939ko Erakustaldi Unibertsalerako. Bost margolanek osatzen zuten bilduma eta 1940. urtean desagertu ziren denak, 1990ean New Yorkeko zinema areto porno batean agertu ziren arte. Prentsa nazional eta nazioartekoan hedatu zen albistea. Egun, Kantabriako Unibertsitatean daude. Manterolak azterketa sakona egin du: “Koadroa arretaz begiratu gero, emakumeak ihes egiten ari dira, suntsitutako herri bat ageri da atzean”. Bere aburuz, zantzu asko daude Gernikarekin zerikusia duela pentsatzeko.



**CARMELO ORTIZ DE ELGEA, “Colección Gernika” (2012)**

Gernikako Euskal Herria Museorako egindako bilduma (hamaika pintura dira), bombardaketaren 75. urteurrenerako. “Kolarearen indarrak baliatzen da bilduma honetan. Gainera, Picassok nahi ez zuen literaltasunean erori zen artista”, dio Manterolak.



ARG.: carmelortizdeelgea.com



ARG.: eetxeberria.wordpress.com



ARG.: El Correo



**PICASSOREN GUERNICAREN GIZA-BIRSORTZEA (2017ko apirila)**

Santurtziko San Jorge Profesionalen Formakuntza ikastetxeke Makillaje eta Karakterizazio Profesionala graduko ikasleek egin, Gernikako kaleetan. ♦

**ESKULTURAN:**

Pinturan ez ezik, eskulturan ere egin dira gaiaren inguruko obrak. Manterolaren aburuz, nabarmenenak Jorge Oteiza, Nestor Basterretxea eta Remigio Mendibururenak dira. Euskal Herria Museoak haien obren erakusketa bereziak eskaini ditu urteetan zehar.



Oteizaren medailoiak, “El caballo de Gernika”, 1987, igeltsuan eta brontzean. ARG.: Euskal Herria Museoa



Basterretxearen “Agonía de fuego”, 2012an inauguratua, Gernikan. ARG.: G. Aranzabal

## Elai-Alai, dantza taldetik harago

*Bonbardaketaren ondoren Frantziara erbesteratu behar izan zuen taldeak zutunik jarraitzen du gaur egun*

«Gure atarteetako ohiko ostalaria den hegazti migratzaile horren arintasuna eta mugikortasuna bat datoz Elai-Alaiko dantzekin». Horrela definitzen du bere burua taldeak, arina, mugikorra, euskalduna, enara bezalakoa. Hori da Elai-Alai, 1927an Gernikan sortutako dantzari taldea, Euskal Herriko lehen koreografia taldea, zehatz-mehatz. Talde gernikarra, ordea, hori baino askoz gehiago da, bizi izan dituen garai gordinek eta hauek eman dizkioten esperientziek zein bizipenek betirako iraungo dute taldearen memorian, eta baita Gernikako biztanleen oroimenean ere. Guda Zibila piztean egoera zailtzen hasi zen taldearentzat, eta hiria bonbardatua izan zenean, taldeak Frantziara emigratu behar izan zuen, bertan izango zuten arrakasta aurreikusi ezinik. Euskal Herrira bueltatzean topatu zuten egoera, ordea, ihes egin zutenean bezain gogorra izan zen.

### Udal Musika Bandatik jaioa

30. hamarkadaren bukaeran eratu zen Elai-Alai, Jose Antonio Aranaren *Elai-Alai, Euskalherriko lehenengo koreografi taldea* liburuan zehazten den moduan. Herriko musika bandaren zuzendari berria izendatu zen 1925ean, Segundo Olaeta. Honi umeen dantza taldea eratzea otu zitzaion; ikasleei dantza melodiak abestuta irakasten zien solfeoan, eta igarri zuen horrela errazago ikasten zutela eta dantza horiek ikasteko joera ere hartzen hasi zirela. Hau ikusita, musika ikasleekin dantza taldea sortu zuen 1927an, hiru urte geroago Elai-Alairen izena erabiltzen hasiko zena. Arrakasta handia izan zuen hasieratik, eta inguruko herrietako jaialdi guztietara gonbidatuak izaten ziren. Urteak pasa ahala, gero eta haur gehiago zeuden, eta azpitaldeak sortu ziren, adinaren arabera.

### Tragediaren osteko erbestealdia

Apirilaren 26a heldu zen, eta gernikar guztientzat bezala, drama itzela izan zen bonbardaketa Elai-Alaikoentzat ere. Batzuk hil ziren, eta bizirik irteteko aukera izan zutenei ezer gutxi geratzen zitzaien. Ikuskizunetarako jantzi eta dekoratuak erre ziren, eta taldea “esku-hutsik” geratu zen. Gordexola herrian babestu zen taldea, erbestera ontziratzeko modua izan zuten arte. Segundo Olaetak ez zuen alde egiteko baimenik lortu hasiera batean, eta senar-emazte baten ardurapean joan ziren berrogei bat haur Frantziara. Egun batzuk geroago, Olaeta batu zitzaien, bai eta txistulariak eta jostunak.

Denen artean, eta Eusko Jaurlaritzaren babesarekin, taldea Gernikan zen bezalakoa birsortu zuten Frantzian. Hasiera batean Iparraldean eta geroago, Parisen. Frantziako hiriburuan izan zen, hain zuzen, taldearen goreneko unea. Erbesteratuentzat dirua biltzeko Eusko Jaurlaritzak bertan antolatu zuen ekitaldian aritu ziren estreinakoz jendearen aurrean, eta oso txalotuak izan ziren. Horren ondoren, beste hainbat aretotan ere aritu ziren, euskal kulturaren enbaxadore gisa. Egunkarietako taldearen ikuskizunak jasotzen zituzten, bai eta Eresoinka taldearenak ere. Azken hau Parisen zegoen beste euskal dantza taldea zen, eta zenbait ekitalditarako biak elkartu ziren.

### Etena eta taldearen berreskurapena

Gerra bukatuta, Gernikara itzuli ziren haurrak, baina ez zuten egoera samurrik topatu. Haien gurasoetatik asko



ARG.: Facebook

hilda zeuden, eta horrez gain, frankismoak ezarri zuen errepresioa eta euskal nortasunaren aurkako eraso oso bortitzak ziren. Bigarren Mundu Gerra hastearekin batera, egoera gordin hori areagotu zen, eta Elai-Alai bertan behera geratu zen, dantza egiteko indarririk eta aukerarik gabe, enarari hegalak moztu izan balitzaizkio moduan. Etena 24 urte luzekoa izan zen.

1960an kultur berpizkundea somatzen hasi zen, eta testuinguru horretan berreskuratu zen Elai-Alai, 1963an. Santa Zezilia abesbatzaren ideia izan zen, eta proiektua martxan jartzeko, dantzari zaildu batekin harremanetan jarri zen: Txomin Unzalu. Bilbotar hau Gernikara mugitu berria zen, herriko aparailariaren postua eskuratu baitzuen. Iraganean, ordea, Bilboko Dindirrin taldean dantzari izan zen eta baita dantza irakasle Begoñako Gaztedin. Santa Zezilia abesbatzak egokitzen jo zuen dantzari berriak prestatzen hasteko, Iñaki Garai koreografoarekin batera, eta hala izan zen.



ARG.: Ainhoa Iglesia

“Elai-Alairen historia Gernikako historia da”

### TXOMIN UNZALU Dantza irakasle ohia

sendoena liburua idazteko. *Gernika-Lumoko Elai-Alai XX. mendean* liburua “ziurtagiria ez ezik, belaunaldiz belaunaldi taldea mantendu dutenei egindako omenaldia ere bada”, dio Unzaluk. Onartu du, ordea, hasiera batean ez zuela pentsatu kontakizun hain interesgarria zuenik esku artean, baina behin dokumentazio prozesuan bete-betean sartuta egon, benetan merezi zuela ikusi zuen. Elai-Alairen garrantzia ere azpimarratu du, dantzari talde isolatua baino, Gernika hiriaren historiaren parte delako, Gernikaren nortasunean doan zerbait: “Elai-Alairen historia Gernikako historia da”.

1965eko maiatzaren 23an aurkeztu zen bigarrenaz Elai-Alai, Gernikako Pasealekuan, eta Txomin Unzaluren liburuan adierazten den bezala, “berreskurapen horretan, Segundo Olaeta sortzaileak eta Iñaki Garai dantzari eta irakasleak, beren presentziarekin, Elai-Alairen sasoi bien arteko lotura eta jarraipena egiaztatu zituzten”.



ARG.: Facebook

### 2017ko Elai-Alai

Iragana ez ezik, etorkizuna ere badu taldeak, zutunik jarraitzen du hurrei euskal dantzak irakasten eta herriz herri ikuskizunak eskaintzen.

Egoitz Atxikallende taldeko kide da, dantzari eta irakaslea, bai eta diruzaina. “Herrian egiten diren ia ekintza guztietan parte hartzen dugu, urtean hogeita hamabost ekintzetatik gora burutzen ditugu, bakarka zein herriko gainerako taldeekin elkarlanean”, azaldu du. Ekintzetako batzuk Gabonak, inauteriak eta Sanjoanak dira. Horrez gain, galzorian zeuden hainbat ohitura ere berreskuratu dituztela dio Atxikallende: “Besteak beste Kandelario, Eguen zuri, Oilar jokoa eta Lehorreko Kukaina”. Bere aburuz, taldearen historia ezagutzea ezinbestekoa bada ere, aurrera begiratu beharra dago. Elai-Alairen xarma honela definitu du: “Lan bolondresarekin aurrera doan taldea da gurea, herriari dantza irakasteko eta disfrutatzeo aukera ematen diona dohainik”. Egoitz Atxikallende zortzi urterekin hasi zen taldean dantza egiten, hain zuzen, Txomin Unzalu maisu zuela.

Taldeko gazteen artean, Elai-Alairen historia nahiko ezezaguna da. Maddalen Omaetxebarria gernikarrak hemeretzi urte ditu eta taldearen iragana ezagutzen ez zuela onartu du: “Entzunda neukan ibilbide luzeko taldea zela baina ez nekien hainbeste borroka egin behar izan zutenik egungo taldea izan arte”. Bere aburuz, irakasle eta arduradunek ez dute iraganean fokatu nahi, baizik eta dantzak irakasteari ematen diote garrantzia. Omaetxebarria zazpi urterekin sartu zen taldean. Institutu garaian, nerabe zela, gauza modernoagoak egin nahi zituela erabaki zuen. Taldea utzi eta *hip-hop* dantzari ekin zion. Bi urte geroago, ordea, Elai-Alairen espiritua faltan bota zuen eta Elai-Alaira itzuli zen. “Nire familian garrantzi handia dute euskal dantzek eta euskal kulturak, eta niri hori transmititu didate baita ere”, baieztatu du. Dantzaria izateaz gain, irakasle ere bada, eta etorkizunari begira, ez du taldea uzteko asmorik. Bere etorkizuna Elai-Alairen barruan ikusten du. ♦

“Lan bolondresarekin aurrera doan taldea da gurea”  
**EGOITZ ATXIKALLENDE**  
**Elai-Alai taldeko kidea**

# Literatur ikonorik gabeko gertakaria

*Ugariak dira Gernikako bonbardaketaren inguruan idatzitakoak, baina gehienak historia liburuak izan dira*

Picassoren *Guernica*-k gertaera nazioartera hedatu zuen. Koadro bat, hitzik gabekoa, azalpenik gabekoa, baina ongi asko islatzen duena izandako tragedia. Baina Gernikako bonbardaketaren inguruko hitzak eta azalpenak barne hartzen dituen libururik al dago? Oro har, historia liburuak dira gaia jorratu duten gehienak, nobelagintzan eskasagoa izan da gertakariaren tokia. Zein esan daiteke izan dela Gernikako bonbardaketari literaturan eman zaion trataera?

## Ikonorik ez

Iratxe Retolaza Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak argi dauka. *Gernikako bonbardaketa euskal literaturan: errepresentazio eta begirada poetikoak* idatzian, Retolazak literatur ikonorik ez dagoela dio: “Literatur ikonoak gaur egun nobelak dira, eta euskaraz ez dago gaia jorratzen duen nobela handi bat. Badaude nobelak non gertaera aipatzen den, azal-azal, baina hori baino ez”. Berarentzat, guda-gertakariarekin lotutako ikono



Iratxe Retolaza. ARG.: Urola Kostako Hitzza

nagusiak kantak dira, Picassoren koadroarekin batera. “Euskal literaturak, orokorrean, ez dauka gaitasun handirik ikonoak sortzeko. Musikak du ikono bihurtzeko gaitasuna”, adierazi du irakasleak irmo. Horregatik, Mikel Laboak eta Ken Zazpi taldeak Gernikako bonbardaketaren inguruan egindako kantak ikonotzat jotzen ditu.

## Historiko-politikoak

Gaia jorratzen duten liburuak, ordea, egon badaude. Eta hauek gertaerari ematen dioten ikuspuntuaren arabera sailkatzen ditu Retolazak idatzian. Alde batetik, ikuspuntu historiko-politikoak dutenak daude, gehienak. Hauen artean Herbert Southworth historialariaren *The destruction of Guernica* (1975), gertaeraren inguruan eraturitako gezurrak deuseztatzen dituen liburua. Karmelo Landa historialaria da, bai eta Gernika Batzordeko kidea, eta liburu honen testuingurua azaldu du: “Southworth Europara etorri zen Francok kazetaritzaren gainean zuen eragina aztertzeraz, Gernikan gertatu zena ikusita. Bere ondorioa izan zen jendeak bizitza salbatzeko, diru truke edo arrazoi politiko-ideologikoengatik esaten zituela gezurrak”. Landaren aburuz, eskerrak eman behar zaizkie Southworth bezalako idazleei, egia kontatu zutenei. Peter Weiss alemaniarraren *La estética de la resistencia* (1975) beste adibide bat da, Iratxe Retolazaren idatzian nabarmentzen dena. Bertan pertsonaiek Picassoren koadroa ikustean sentitzen dutena azaltzen dute, haien pertzepzioa azaleratzen dute. Pertsonaien sententzietan bidez, egileak gertaera historikoa azaltzen du. Berrogei urte baino gehiago dituzte liburu hauek, baina guztiak ez dira hain zaharrak.



“Euskaraz ez dago gaia jorratzen duen nobela handi bat”

## IRATXE RETOLAZA EHUko irakaslea

Izan ere, gaur egun oraindik ere bonbardaketaren ingurukoak argitaratzen dira. Azkena, Xabier Irujoren *Gernika. 26 de Abril de 1937* da, aurtengo martxokoa.

## Beste ikuspuntuak

Ikuspuntu horrez gain, antropologikoa ere aipatzen du Iratxe Retolazak, hau da, gertaera giza-tragedia bezala ulertzen duena, herri bakar baten aurkako erasoaz haratago. Bonbardaketaren aurretik euskal askatasunaren herria zen Gernika, arbolaren eta foruen pisuagatik, eta eraso euskal nortasunaren aurkakoa bezala ulertzen duten liburuak ere badaude, “ikuspuntu identitarioa” dutenak irakaslearen hitzetan. Gainera, ikuspuntu hau duten lanak dira bonbardaketaren arduradunak aipatzen dituzten bakarrak. “Hauetan ‘haiek gu’ esaten da, beraz erasotzaileak agertzen dira lehenengo aldiz, faxistak. Literaturan, olerkietan, gutxietan aipatzen dira, horiek biktimak dituzte ardatz”, dio.



Literaturaren zeregina ez dela hori uste du, literaturak ez omen ditu-eta kausak aztertu behar.

### Globala vs tokikoa

Kasu askotan gertaerari ikuspuntu globala ematen zaiola baieztatu du Retolazak. Pablo Picassoren margolanaren erreferentzia oso ohikoa da gertaera hau azaltzerako orduan, eta margolana aipatzearen beharra tokiko gertaera bat azaltzeko, ikuspuntu globala ematea dela dio. “Zoritzarrez, lan gehienetan dago Picassoren *Guernica* presente. Euskaldunoi ere ia ezinezko egiten zaigu bombardaketaz hitz egitea Picassoren margolana aipatu gabe”, azaldu du. “Zoritzarrez” hitza erabili du pintore malagarraren itzalak euskal gertakari hori globalizatu duelako, baina ez dio duen balioa kendu nahi: “Ez dut koadroak izan zuen funtzioa gutxietsi nahi, baina egia da ez dela euskal artista eta ez ziola Gernikari euskal ikuspuntutik begiratu”. Karmelo Landak, bere aldetik, koadroa Gernikan egotearen garrantzia azpimarratu du, Gernika Batzordetik borrokan ari diren auzia da hau, hain zuzen ere. “Koadroak Gernikan hartzen du bere zentzu osoa”, argudiatu du. Pintura hori sinbolo bihurtu dela dio, baina sinbolo horrek historia duela oinarri: “Sinboloa ez da fikzioa, sinbolo bat errealitate zehatz batean oinarritua dago”.

Aitzitik, Gernikako arbolaren edota Lauaxeta idazlearen ikuspuntutik kontatzen denean gertaera, bertakotu egiten da. Esteban Urkiagaren (Lauaxeta) fusilamendua, Gernikan atxilotua izan eta denbora batera, euskaldunok soilik kontuan hartzen dugun gertaera da. Euskaldunok bakarrik lotuko genuke hori bombardaketarekin, Retolazaren aburuz.

### Aldien araberrako sailkapena

Mari Jose Olaziregi eta Lourdes Otaegik antzeko ikerketa egin zuten: *La representación del bombardeo de Gernika en la literatura vasca*. Honetan, EHUko irakasle eta ikertzaile biek garaiaren arabera

sailkatzen dituzte gaia jorratu duten lanak. Lehenengo aroa egiaren aldarrikapenarena da, gertatutakoa argitu eta errudunak seinalatu nahi zituena. Ondoren, hausnarketa aroa ere egon zen, non gertaerak euskal politikan izan zituen ondorioak aztertzen ziren. Azkenik, bombardaketa hura egungo gertaerekin harremanetan jartzen duten literatur lanak daude, ikerlarien arabera.

### Poesia


Olerkigintza da, historiaren ondoren, gertaera gehien landu duen arloa. Eusebio Erkiagaren *Ez zaitzez Gernikara joan, Lauaxeta* edo Ignazio Aiestaranen *Poesia Auschwitz eta Gernikan*, besteak beste. Jose Anton Artzek egin zuen bereziena, ordea. Itxura aldetik, behintzat. Izan ere, olerkia irudi bisual batean txertatu zuen, berari bombardaketak eta olerkiak iradokitzen ziotena irudikatuz (argazkian). *Isturitzetik Tolosan barru* poema-liburuan argitaratu zuen hau.

### Literatura falta

Baina, arestian esan bezala, literatura ikonorik ez du 1937ko bombardaketak, lanak eskasak izan baitira. Euskal literaturan, azpimarratzeko bi lan daude: Kirmen Uriberen eleberria eta Bernardo Atxagaren saiakera. Lehenengoak *Mussche* idatzi zuen 2012an, bombardaketaren ondoren Belgikara erbesteratutako haur euskaldun baten istorioa kontatzen duena. Atxagaren saiakerak, *Markak. Gernika 1937*, guda-gertaera horrek utzitako aztarnak edo markak aztertzen ditu, kasu zehatzak aurkeztuz, eta hala, gertaera hurbilduz. ♦

“Sinboloa ez da fikzioa, errealitate batean oinarritua dago”

**KARMELO LANDA**  
Historialaria eta Gernika Batzordeko kidea



Artzeren poema. ARG.: Iratxe Retolaza

A photograph of Bernardo Atxaga, an elderly man with grey, curly hair, wearing a dark zip-up sweater over a blue and white plaid shirt. He is sitting and looking down at a book he is holding in his hands. The book cover is yellow and black, with the title 'GERNIKA' visible. In the background, there is a window with a view of trees and a laptop on a desk. A semi-transparent dark grey box is overlaid on the lower left of the image, containing white text.

**BERNARDO ATXAGA - IDAZLEA**

“Gernika beti  
izan da euskal  
askatasunaren  
sinboloa, eta  
bonbardaketak hori  
indartu zuen”

Idazle gipuzkoarrak beti izan du joera markei erreparatzeko, berak dioen bezala, gertaera edo garai batek pertsonengan edota ingurunean utzi dituen markak ikusteko. 2007an argitaratutako saiakerak horixe bera du izenburu eta hizpide: **Markak. Gernika 1937**. Bertan, Gernikako bonbardaketak utzitako arrastoak aztertzen ditu, jatorrizko agiriekin lagunduta. AEBetako zuhaitzen markak, Ingalaterrara erbesteratutako haur baten eskutitza, edo bere osabaren orbaina adibide batzuk dira. Markak eta marka-ezabatzaileak aurrez aurre jartzen ditu gertaera nolakoa izan zen azaltzeko.

### **Saiakera hau erreferentziaz eta agiriz josita dago. Nolakoa izan zen dokumentazio prozesua?**

Irudi batekin esateko, plastikozko botila ikusi nuen itsasoan eta hura harrapatzen ahalegindu nintzen, eskua luzatuz, makilekin... Baina zenbat eta ahalegin gehiago egin, orduan eta urrunago zegoen botila. Hori gertatu zen gai honekin. Gainera, konturatu nintzen ezinezkoa dela tragediei edo drama handiei buruz idaztea kanpotik. Egin daiteke, baina jakin behar duzu bigarren mailako zerbait egingo duzula. Ordea, lekuko batek idazten duena, nahiz eta bost orrialde izan eta idazten ez jakin, lehen mailakoa izango da beti. Horren adibide ona da Jacob Walterren *The Diary of a Napoleonic Foot Soldier*. Napoleonen armadaren erretira Moskutik kontatzen du, lekuko batek kontatzen du. Horko bost orrialdek historia liburu oso bat baino gehiago balio dute. Kanpotik idaztea oso zaila da, ezinezkoa ez esatearren. Hori bai, *Markak*-en agertzen diren agiriak, horiek bai dira lehen mailakoak. Luis Cernudaren poema pathetikoa... pathos hitzetik, ez erredikulua! (Kar, kar) Edo Andonirena: emaztea eta biok Londresen geundela, bigarren eskuko denda batean sartu ginen arakatzera. Emazteak, Yvonne Cloud idazlearen biografia-edo begiratzen ari zela, "The basque children in England" irakurri zuen, zirudienez, Cloudek idatzitakoa. Hori aurkitzea odisea izan zen! Azkenean Estatu Batuetan aurkitu genuen, herri txiki bateko denda txiki batean. Beraz, markek kalitate handia daukate, ez daude liburu arruntetan, ia ezabatuta zeuden asko. Nire osabaren marka, bestalde, nire osabarengandik nigana zuzenean etorritakoa da.

### **Milango museo batean ikusitako *Il masso di Borno* deituriko harriak bultzatu zintuen liburu hau idaztera, hein handi batean. Zer ikusi zenuen pieza horretan?**

Beti begiratu diet asko markei, ohartzten naiz markekin. Nire begiradak tropismoa dauka, joera. Batzuk itsuak bezala ibiltzen dira hortik, baina nik joera dut markak ikusteko. Milangoa ez zen batere museo erakargarria, baina irakurrita nuen bazegoela harkaitz bat, harri handi bat arrastoekin, eta hara joan nintzen. Eta asko gustatu zitzaidan, bereziki niri marka soilak gustatzen

zaizkidalako, ez gauza barroko eta gehiegi apainduak. Eta harriak halako irudi geometrikoak zituen, marrak eta. Baina abiapuntua, markekin lehenengo harremana, Etiopian izan zen, gaztetan idatzitako poema libururako. Etiopian nengoela gaztelu bat bisitatu nuen, eta guarda gelan hainbat marka ikusi nituen, orain dela urte askoko soldaduek utzitakoak. Gehienbat haien izenak ziren, edota neskalagunari utzitako mezuak: "Eloise je t'aime" eta abar. Hori izan zen markekin lehen kontaktua. Beraz, aurrena joera bat neukan, eta joera Gernikara bideratu nuen.

### **Zein zen liburuaren xedea idatzi zenuenean?**

Idazten dudan guztiarekin lortu nahi dudana da egia eta edertasuna, ez dut uste hortik aurrera joan daitekeenik. Egia amets bat da, baina behintzat puska bat izatea liburuk. Nire ustez oso garrantzitsua da alde aurretik gairekiko loturaren bat izatea, ez hastea idazten bat-batean gai polita iruditu zaizulako: "Hasiko naiz idazten eskupilotari buruz!", ez. Nik banuen lotura, alde batetik beti izan ditut markak gogoan, bestalde osabarena... gai hurbila da euskaldun guztiontzat, oro har.

### **Gernikako bonbardaketari buruz gauza ugari egin dira, bai idatziz, bai artean, baita musikan ere... Zein da guda-gertaera horren berezitasuna?**

Argi dago gertaera ezin dela era kuantitatiboan baloratu. Hori marka-ezabatzaileek egiten dute, hildako kopuruagatik alderatzen dute beste gertaera batzurekin. Bihurtu da izen bat, alegoria bat, eta izen horren atzean dagoena da aurreneko aldiz herri arruntaren, zibilaren, aurkako bonbardaketa, kalkulatu, ez hutsa. Nazien bonbardatzeko modua erabiltzen da, suzko bonbekin eta, lehen adibidea kaleko jende arruntaren aurka, haurren aurka... Horren inpaktua hain handia da, zein egileak ez du

"Oso zaila da tragediei buruz idaztea kanpotik. Jakin behar duzu bigarren mailako testua izango dela"

oraindik onartu nahi. Espainiako Gobernuak ukatzen du, Kainek ez du Kain izan nahi. Horregatik eraiki zuten bonbardaketa gorri errepublikanoek egin zuteneko bertsioa: "Gu ez gara izan, gorriak izan dira! ¡Los separatistas vascos!". Momentuan bertan konturatzen dira hori izugarria izan dela, eta hor geldituko dela marka bat. Eskerrak Picassoren markari, bestela ezabatu egingo zen. Garaiko presioa egia argitara atera ez zedin izugarria izan zen. Eta ez orain dela hainbeste denbora, esaterako, Planeta argitaletzeko zuzendaria Gernikako gertaerari buruzko gauza bat argitaratzen saiatu zen 1968-69an, eta ez zioten utzi.



ARG.: Atxaga.eus

**Zein mailaraino izan da garrantzitsua Picassoren koadroa?**

Izugarría, ez dago konparaziorik. Agian garaiak lagundu zion baita ere, XIX. mendearen hasiera, iraultza artistikoa, gerrak egon ziren tartean... Baina meritua dauka, hala ere. Koadro honi gertatu zitzaion gauza bitxia:

hasieran ez zitzaion inori gustatu, bereziki EAJri, ez zitzaion batere gustatu. Agirrerren gobernuan Uzelai pintorea zen arduradun artistikoa, eta horrek egin behar zuen koadroa. Azkenean Picassok egin zuen, eta Uzelaik sekulakoak esan zituen koadroaren inguruan, Picassok ideiarik ez zuela gerraz, ez Gernikaz, pintatzeko makina zela... Baina errepublikanoei ere ez zitzaien gustatu. Abstraktua izanda, ezer ikusten ez zela zioten. Gaur egun, ere, marka-ezabatzaileek esaten dute koadro hau ez dela Picassoren onena, ezin dela alderatu *Les demoiselles d'Avignon* lanarekin... hori ezin da egin. Ezin da koadroa bere ordenetik atera, bere testuingurutik atera. Obra honek lotura politikoa du, gerrarekin lotura, krimenarekin... eta hori da bere balioa. Koadro hau ezin daiteke ulertu testuingururik gabe, historiari gabe. Beti gertatu da hala, artea, bera bakarrik, apaingarria baino ez da, behar du harremana zerbaít indartsuarekin, “cable a tierra” deitzen diot nik.

**Gertaera horren transzendentziak, gainera, egunera arte dirau. 80 urte pasata, zergatik dago gertaera bukatu ez izanaren sentsazioa?**

Guda Zibileko auzia ez delako itxi. Behintzat Gernika hor dago, museo bat dago, munduan ezaguna da... beste toki batzuk, ezta hori ere. Memoriari eustea oso zaila da, denbora bera marka-ezabatzaile bat delako. Gainera, ez dira hildakoak identifikatu. Horrekin zerikusia du gobernuak, gobernuari boterea ematen diotenek. Espainiako gehiengoak, status quoak. Batzuek esango dute bakearen izenean uzten dutela gaia aparte. Esaldi famatua: “Historia ez dadin errepikatu”. Hori tontakeria da. Egun badaude, biblikoak jarrita, argiaren seme-alabak eta ilunaren seme-alabak, borroka hori beti egon da eta egongo da. Borroka zera da: nor da zibilizazioaren ikur eta nor *barbarie*arena. Eta inor ez da *barbarie*aren ikurra izan nahi. Gogoratu, Kainek ez du Kain izan nahi.

**Eusko Jaurlaritzak bonbardaketa eta hilabetera liburuxka bat argitaratu zuen, ingelesez, sarraskiaren egileak nortzuk izan ziren frogatzen zuena, argazki eta agiriekin. Zergatik ez zuen izan horrek eragin handirik?**

Zergatik egon da hain ezkutuan hainbeste denboran zehar? Ba ez dakit, Eusko Jaurlaritzaren faksimile hori aurkitu zen kasualitatez, gainera jartzen du polizia militarren jabetza dela, honek gorde zituen aleak. Gero jakin izan da ez zegoela ale bakararra, Sabin Etxean beste ale bat zegoela, edo erreferentzia bat behintzat. Seguruenik hainbat faktorek izan zuten zerikusia. Alde batetik diktadura bat zen, oso luzea. Baina bestalde, argi geratzen da, baita ere, zein ahultasun intelektuala izan

duen nazionalismoak, nazionalismo honek. Hau da, adibidez, Jose Antonio Agirrerren *Desde Gernika a Nueva York pasando por Berlín* liburua, oso polita, ez zuen eduki merezi zuen ediziorik. Steeren kronika ere, edo beste liburu batzuk... Nik, EAJko burua izango

banintz (imajinario handia dut), argitalpen masiboa egingo nuke. Eta aldiz, Sarriko ekonomia ikasten ari nintzela, eta jada asko irakurtzen nuen, ez nuen horrelako eraginik jaso. Oso apal geratu ziren hain indartsu izan zitezkeen dokumentuak.

**Gernikako bonbardaketa gertaera historikotik haratago doa, ikono bihurtu da. Zer suposatzen du gertaera horrek euskal kulturarako?**

Lehengora itzuli da Gernika. Zer esan nahi dut? Gernika beti izan da euskal askatasunaren sinboloa, autonomiarena. Karl Marxek ere Gernikako batzarrak aipatu zituen. Gertatu zenak indartu zuen sinbolo hori, froga handiagorik behar bazen, ba naziak bonbardatu zuten. Gertaerak indarra itzuli dio. Are gehiago, ausartuko naiz esatera Otegi lehendakari egiten bada, seguruenik Gernikara joango dela. ♦



ARG.: Centro Niemeyer

# Pantaila handiak badu zeregin soziala

'Gernika', 'Lauaxeta, a los cuatro vientos' eta 'Gernika bajo las bombas' filmek bonbardaketaren gertakaria gogora dakarte, historia eta fikzioa uztartuz

Zinemak entretenitzen du, ez dago zalantzarik. Eta hala izan behar du, helburua ikusleak pelikula amaitu arte ikustea bada. Baina zinemak bestelako zereginik ere izan dezake, historia hedatzearena, gertaera jakin bat publikoari helaraztearen zeregin soziala. Izan ere, ikus-entzunezkoek eskaintzen duten abantaila zera da: historia era entretenigarri eta bisualean kontatzeko ahalmena dute.

Horretaz baliatu dira zenbait zinemagile, eta Gernikako bonbardaketaren gertaera pantaila handira eraman dute fikzioaren eta historiaren arteko uztardura eginez. Ordea, gutxi dira gertaera honen inguruan egindako ekoizpenak. Joxean Fernandez Euskadiko Filmategiko zuzendariak honela azaldu du horren zergatia: "Guda Zibilean zehar ez zegoen ez dirurik ez denborarik zinema egiteko, eta horren ondoren, galtzaileak isildu behar izan ziren eta frankistei ez

"Guda Zibilean ez zegoen ez dirurik ez denborarik zinema egiteko, eta ondoren, galtzaileak isildu behar izan ziren"

## JOXEAN FERNANDEZ

### Euskadiko Filmategiko zuzendaria

zitzaien interesatzen Gernikakoa jakinaraztea". Fernandezek Gerra Zibila Euskal Herrian zinemaz nola irudikatu zen jorratu zuen bere tesian, eta "Zinema eta Gerra Zibila Euskal Herrian" izeneko artikulua bat argitaratu zuen 2012an Euskadiko Filmategiarekin, tesiaren edukia-aren laburpen moduan. "Gernikari buruz egindako gehiena dokumentalak izan dira, eta gerra garaioak p r o p a g a n d a hutsa dira", azaldu du.



Ezkerrean, Xabier Elorriaga filmaren eszena batean. ARG.: mondraberri.com

Filmategiko zuzendariaren aburuz, garrantzitsua da zinemak gai historikoak jorrotzea, irakurketa filmikoek "oihartzun sozial handia" izaten dutela baiteritzo. "Ikus-entzunezko obra bat lan akademiko bat baino jende gehiagora heltzen da", argudiatu du.

## Aurreneko fikzioa

Dokumental edo pelikula-dokumentalen ondoren egindako lehen fikziozko ekoizpen handia *Lauaxeta, a los cuatro vientos* (1987) izan zen, Joxean Fernandezek dioen moduan. 1987ko filma da, Jose Antonio Zorrillak zuzendua, eta Jose Ramon Barea, Karra Elejalde eta Xabier Elorriaga protagonista dituenak. Lauaxeta poetaren (Xabier Elorriaga) historia du oinarri, bere bizitzaren azken etapa kontatzen du, Gernikan atxilotu eta gero fusilatzen duten arte. "Oso pelikula zintzoa da, historiaren ikuspuntutik. Garaian zeuden baliabideak kontuan izanda, zintzoa eta tinkoa da", azaldu du Fernandezek. Gidoiaz Zorrilla bera, Xabier Elorriaga eta Arantxa Urretabizkaia idazlea arduratu ziren. Azken kasualitatez heldu zen gidoigintzara, *Albaniako konkista*-rekin (1983) eta Lauaxeta bere bigarren pelikula izan zen:

"Angel Amigo ekoizleak laguntza eskatu zidan *Albaniako konkista* (1983) filmerako, historiagile moduan berak zituen datuak egiaztatzeko, eta gidoiaren idazketan ere parte hartu nuen. Ondoren, Gernikako bonbardaketaren 50. urteurrena hurbiltzen ari zela, horri buruzko zerbait egitea bururatu zitzaion, eta berriro deitu zidan". Urretabizkaia aburuz, ordea, pelikula "lauegia" geratu zen, Lauaxetaren historia oinarri zenez, horrekin lotuegiak egon ziren eta gertaeran sakontzea falta izan zitzaion. Joxean Fernandezekin bat



Arantxa Urretabizkaia. ARG.: Etxepare.eus

"Esperientzia honekin frogatu dut nire esparrua ez dela zinema, literatura dela"

## ARANTXA URRETABIZKAIA Idazlea



dator, ordea, garaiko baliabideak kontuan izanda produktu ona egin zutelako ustean. Nahiz eta Esteban Urkiaga poetaren ikuspuntuak “lotzen” zituen, idazleak argi dauka beharrezkoa zela bere historia (eta heriotza) kontatzea: “Bi poeta handi egon ziren gerra aurretik, Lizardi eta Lauaxeta, eta azken honen fusilamenduak etena suposatu zuen euskal literaturarako. Lauaxetaren

### Pantaila txikian

Zinemarako ez ezik, telebistarako ere ikus-entzunezko fikzio bat egin da Gernikako bonbardaketaren inguruan. *Gernika bajo las bombas* da hau, 75 minutuko bi ataleko telesaila. 2012an egin zen, Erpin 360°, Vértice Cine eta Baleuko ekoiztetxeen eskutik, EiTBren babesarekin eta Luis Mariasek

“Ikus-entzunezko obra bat lan akademiko bat baino jende gehiagora heltzen da”

**JOXEAN FERNANDEZ**  
Euskadiko Filmategiko zuzendaria

“Genuen aurrekontu murriztarekin gauza polita egin genuen”


**ASIER BILBAO**  
‘Gernika bajo las bombas’ telesailaren ekoizpen burua



‘Gernika bajo las bombas’ (2012) telesailaren protagonistak eszena batean. ARG.: zonasaracasanovas.com

poemak oraindik irakurtzen dira, oraindik musikatzen dira, eragin handia du”. Pelikulak, gainera, Guda Zibilaren errealitate asko irudikatzen ditu Euskadiko Filmategiko zuzendariaren aburuz, Lauaxeta karlista batekin hitz egiten ari deneko eszenan, kasu. Alde desberdinetan dauden arren, euskaraz hitz egiten dute haien artean. Fernandezentzat, horrek argitara dakar Guda Zibila euskaldunen arteko guda ere izan zela.

Arantxa Urretabizkaiak, bere aldetik, gidoigintzaren mundua baztertu du jada. Bi esperientzia horien ondoren, bere esparrua literatura dela ondorioztatu du: “Zinemak pertsonaiek egiten dutena erakusten du, baina literaturak sentitzen dutena ere kontatzen du, eta hori da pertsonaietatik interesgarriena”. Bere burua “kazetari eta idazle” bezala ikusten du.



ARG.: FilmAffinity

zuzendua. Ekoizpen burua Baleuko Asier Bilbao izan zen: “Hasieran pelikula izateko ideia genuen, baina TV movie-ra aldatu genuen azkenean, telesailera”. Izan ere, telebistak aurrekontu txikiagoarekin produktu

luzeagoa egitea ahalbidetzen duela dio, eta hori abantaila dela. “Genuen aurrekontu murriztarekin gauza polita egin genuen, produktu hurbila ikusleentzat”, gehitu du Bilbaok. Joxean Fernandez ideia berekoa da: “Zinemaren eta telebistaren formatuak oso desberdinak dira, bai eta aurrekontuak ere. Ezin da telebistarako egindako ekoizpen bat zinemarako egindako beste batekin alderatu, ez daude maila berean”. Hau kontuan izanda, *Gernika bajo las bombas*-en emaitza zuzena izan zen, egokia, Filmategiko zuzendariaren aburuz. “Eskertzekoa da bai ekoiztetxeak eta bai euskal telebista publikoa historiaren telebista-irakurketak ematean interesatuta egotea 75 urte geroago”, gaineratu du. Asier Bilbao ekoizpen buruak argi izan zuen hasieratik aurrekontura egokitu behar zirela: “Erabaki nuen pertsonaia kopurua murriztea eta eszena zailak (eta garestiak) murriztea baita ere, hobe da hiruzpalau eszena on hamar kaskar baino”. Horrez gain, zinemak entretenitu behar duela sinesten du, hezitzen badu, hobeto, baina entretenitzea funtsezkoa dela uste du Bilbaok: “Ikuslea filmaren une batean aspertzen hasten bada, istoriotik kanpo ateratzen da, haria galtzen du, eta ez du gertatzen ari denaz gozatuko”.

### Azkena eta ezagunena

Iazko irailean estreinatutako Koldo Serraren *Gernika* da gaiaren inguruan egindako azken fikziozko pelikula. Goya edo Gaudi sarrietan hautagai izan

da, efektu berezi onenen izendapena izan zuen lehenengoan eta jantzitegi onenarena bigarrenen. Maria Valverde protagonista duen filmak mota guztietako kritikak jaso ditu: superproduktzio arrakastatsua alde batetik, eta historiaren asmakizun hutsa bestetik. Joxean Fernandez iritzi bien erdian kokatzen da: “Errealitate historikotik aldentzen da guztia fikziora eramateko, nabaritzen dira Sony nazioarteko ekoiztetxe-banantzailearen presentzia eta helburuak”. Ordea, pelikularen asmoa horixe bera zela argudiatu du Fernandezek, pelikularen xedea ez zela dokumental bat izatea, baizik eta nazioarteko publikoarentzat erakargarria izango zen filma sortzea. Izan ere, horixe bera baieztatu zuen filmaren zuzendari Koldo Serrak Euskadiko Filmategian *Gernika* (2016) aurkeztu zuenean. Pelikularen asmoa dokumentala



‘Gernika’ (2016) filmaren protagonistak eszena batean. ARG.: Kukuxumusu.com

izadetik urrun zegoela argudiatu zuen. Joxean Fernandezek ustez, Eusko Jaurlaritzaren papera alde batera uzten du *Gernika*-k eta, ostera, garrantzi gehiegi ematen die errealitatean hain esanguratsuak izan ez ziren beste elementu batzuei. ♦

“*Gernika* errealitate historikotik aldentzen da guztia fikziora eramateko”

**JOXEAN FERNANDEZ**  
Euskadiko Filmategiko  
zuzendaria

ZINEMA KRITIKA: *GERNIKA*, KOLDO SERRA, 2016

## Historiaren eta fikzioaren arteko uztartze zentzugabea

Fitxa teknikoa:

**Zuzendaria:** Koldo Serra

**Aktoreak:** Maria Valverde, James D’Arcy, Jack Davenport, Burn Gorman, Ingrid Garcia Jonsson, Alex Garcia, Julian Villagran eta Irene Escolar

**Gidoia:** Carlos Clavijo Cobos eta Barney Cohen

**Argazkia:** Unax Mendia

**Herrialdea:** Espainia

**Generoa:** Drama, belikoa, amodiozkoa

**Iraupena:** 110 minutu

**Puntuazioa:** \*\*

Zinemagile bilbotarraren bigarren film luzea da *Gernika*. Bonbardaketaren aurreko egunak kontatzen dira pelikulan, bonbardaketaren unearekin amaiera emateko. Protagonistak kazetari estatubatuar bat (James D’Arcy) eta Errepublikako Prentsa eta Propaganda Bulegoko funtzionario bat (Maria Valverde) dira. Oro har, idealizatu egite daude bi pertsonaiak, gehiegizko heroi kutsua dute eta. Gizonaren rola, bereziki. Hau George Steer kazetari britainiarrean oinarrituta dago hein batean, baina berarengandik urrun geratzen da.

Historiaren ikuspuntutik ezin esan Gernika eredu denik, baina ez zen hori Koldo Serraren helburua. Hortaz, ez dago alde hori kritikazterik. Institutuetako historia eskoletan ezin izango dute jarri, baina igande arratsalde bat pasatzeko pelikula aproposa da, ikus-entzunezkoaren aldetik egokia, edo hori baino gehiago, ona.

Nahiz eta zuzendariak dokumental bat egin nahi ez zuela adierazi duen, egia da nahaste ausartegia egin duela historiaren eta fikzioaren artean. Arriskatu du, eta alde horretatik, galdu du. Sobietar komunismoaren papera, Gernikako bonbardaketan garrantzi gutxi izan zuena, asmatu du, eta zenbait pertsonaia (aipatutako kazetari estatubatuarra, kasu) idealizatu ditu.

Generoa drama da, bai, baina ikusleak ez du jasotzen beharko lukeen tragedia sentsazioa. Filmaren hutsune nagusia sentimendu eta sentsazioak adierazteko ezintasuna da. Azalean geratzen da, ez du ikuslea hunkitzen. Oro har, ikus-entzunezkoari eta ekoizpenari dagokionez pelikula guztiz egokia da, ikusgarria eta entretenigarria. Baina ez da, inolaz ere, memorian gordeko dugun horietakoa izango.



ARG.: FilmAffinity

## “Oso zaila da kanta baten indarrarekin lehiatzea, barrura sartzen zaizu”

*“Phoenicoperus” azken diskoaren biran barrena dabil Ken Zazpi, eta horrela egongo da urria arte. Orduan, taldea agurtuko da. Ez dakite disko gehiago aterako dituzten edo ez, baina ez dute disko berririk aterako inertzia batek bultzatuta. “Mugitzen dituen zerbait” izan behar da, merezi duela sinestera daramatzana. Oraingo honetan, ordea, 2007an kaleratutako diskoa du hizpide Eñaut Elorrietak, “Argiak”. Izan ere, bertan argitaratu zen “Gernikan” kanta, bonbardaketan oinarritutakoa, biktima batzuen izenak zerrendatzen dituena. Kanta ederra mezu gogorrekina.*

### Zergatik erabaki zenuten *Gernikan* kanta egitea?

Gernikako bonbardaketa, duela hamabost urtera arte edo, gai ia ezezaguna zen niretzako. Baina nire amona hiltzear zegoenean, telebistan gerra irudi batzuk atera zirela-eta, deitu ninduen eta esan zidan belarrira: “Eñaut, kontuz ibili, gerra dator eta”. Berak hamaika urte zituela bizi izan zuen bonbardaketa, eta nahiz eta ez zuen Gernika aipatu, barruan zeukan gerraren itxi gabeko zauria atera zitzaion. Orduan gai hau barnean lehertu zitzaidan, bonba batek barruan eztanda egin balit bezala sentitu nuen. Galdezka hasi nintzen, ikertzen. Eta hortik sortu zen kanta egitearen beharra, horri buruzko kanta egin behar nuela pentsatu nuen, gai oso “potentea” zen eta gu gernikarrak ginen. Hortaz, guk musika konposatu genuen eta Joseba Sarrionandiari eskatu genion melodia horren gainean letra konposatzeko. Hau da, berak espreski idatzi zuen olerki hau abesti honentzako, ez dago bere poema liburuetan argitaratuta.

“Gai hau barnean lehertu zitzaidan hiltzear zela amonak esan zidan gauza batengatik”

### Abestiaren letrak izen propioak zerrendatzen ditu, nortzuk dira pertsona horiek?

Gorputegiko zerrenda bat da. Bonbardaketa izan eta ordu batzuetara, gorpuak biltzen hasi ziren eta gorputegira eramaten, identifikazio lanak egiteko. Ez gorpu guztiak, noski, asko identifikatu barik daude. Eta zeudenen artean, gehienak oso egoera kaskarrean zeuden. Gernikan proban jarri zituzten suzko bonben eraginez gorpuak guztiz kiskalita zeuden. Pentsa zein zen egoera, bigarren eta hirugarren identifikazioak egin behar izan zituztela gizakien eta animalien gorpuak bereizteko. Hori da kanta, identifikatutako hildakoen zerrenda, izen-abizen propioekin. Izenak entzutean aitona-amonen izenak direla pentsatzen da, Agapita bezalako izenak direlako. Baina asko umeak baino ez ziren, ez ziren aitona-amona izatera iritsi.

### Izen-abizenen artean, “neskato erre bat, gorputz zatiak”... tartekatzen dira, izenak baino are gogorragoak diren irudiak. Abestia kantatzen duenean mezuaren larritasunaz ohartzten da jendea?

Pentsatu nahi dut baietz. Animalia zatiak agertzen direnean irudikatu nahi da momentu hori, gordintasun hori: gizakiak eta animaliak nahastuta. Gertatzen da jendeak kanta entzutean, azalpen handirik jaso gabe, nolabaiteko energia jasotzen duela, hunkitu dezakeena nahiz eta zehazki zer gertatu zen jakin ez. Hori da helburua, baita ere, belaunaldi berriei irudi hori eta testigantza hori kanta baten bitartez transmititzea. Argi dago ez dutela azalpen luzeago baten adina xehetasun jasotzen, baina lehen inpaktua bai.

**Egun, oraindik, ez da biktima kopuru zehatza ezagutzen. Horrek are garrantzitsuago**

**bihurtzen du biktimei izenak ematea?**  
 “Gernikan kantaren helburua gertaera zehatz batetik gauza orokor bat azaltzea da”  
 Dudarik gabe. Niretzako maite duzun norbait galtzea, hiltzea, oso



ARG.: Diario de Noticias



gogorra da. Baina dolua egiten diozu. Hori baino askoz gogorragoa iruditzen zait norbait desagertuta izatea, ezin diozunean dolua egin. Hainbeste urte pasa ostean, hilda egongo dela pentsatzen duzu, baina nola? Non dago? Ez dizu uzten era natural batean zauria ixten. Egun, oraindik, badago jende pila bat bere arbasoak non dauden ez dakiena, eta ez soilik Gernikako gertaeran. Bila dabilzanak, eta, gainera, ikusten dutenak gaur eguneko agintari askok trabak jartzen dizkietela bilaketa lan horretan. Ez dut uste hori baino gauza mingarriagorik dagoenik. Ezinbestekoa da, horregatik, jende horri izen-abizenak jartzea edo omenaldi bat egitea, zauri hori ixteko aukera ematea. Ni ez naiz aditua, baina nire irizpidetik j a r r i beharko lirateke baliabideak, eta laguntzak, jende horri guztiari beraien zauriak eta beraien doluak egiten laguntzeko, senide horiek bilatzeko. Haiek senti dezaten ahal duten guztia egiten ari direla, eta gizartearen eta erakundeen babesa daukatela.



ARG.: Ainhoa Iglesia

**Beste musikari batzuek ere Gernikako bonbardaketari buruzko kantak egin dituzte: Kortatu, Mikel Laboa... Zein izan da gertaera honen eragina musikan?**

Gernikakoa bihurtu da sinbolo bat, baina bonbardaketak Otxandion, Eibarren edo Durangon ere eman ziren. Gure abestiaren desioa ere bada ekintza zehatz batetik gauza orokor bat azaltzea. Tokian tokiko gertakaria gainditzeko helburua izan genuen. Suposatzen dut nik barruan sentitu nuen eztanda beste musikariek ere sentituko zutela, azaldu behar bat. Entzunda daukat Mikel Laboak Lekeitio inguruan, mendian, abioiak ikusi izanaren oroimena zuela, edo kontatu ziotela edo. Berak ere sentituko zuen hamarkadetan isildutako gertaera larri hura kontatzeko beharra. Gainera, hori zabaltzeko beharra askotan ez da kanpora, baizik eta hona, esateko gure jendeari: “Ei, badakizue hau gertatu zela?”

**Zein esango zenue delakulturaren zeregina maila honetako gertaera historikoen aurrean?**

Bi ziren nire nahiak kantu honekin: alde batetik, barnean borborrean neukan oiho horri bidea ematea. Iruditzen zitzaidan nire aurreko belaunaldien zauri hori nigan baneukala, eta hori askatzeko gogoa nuen. Eta bestalde, testigantza hori beste batzuei hedatzea. Kulturaren edo musikagintzaren indarra horretan datza: barrura begira, nire barne gatazkak eta kezkak bideratzeko ahalmena dauka. Eta baita ere, jende aurrean kantatzen dituzun momentuan, beharbada balio izango die beraien kezkak bideratzeko. Nire ustez oso zaila da kanta baten indarrarekin lehiatzea. Hiruzpalau minutuko obra bat da, berehalakoa, kontzienteki edo inkontzienteki barrura sartzen zaizuna. Gainera betidanik egon da estu-estu lotuta historiarekin. Botereek eta kontrabotereek erabili izan dute historian zehar, tresna eraginkorra izan da.

**Nahiz eta 80 urte igaro diren, gaurkotasuneko gaia da. Zein da herrian arnasten den giroa?**

Uste dut honek guztiak izan dezakeen indar edo potentziala ez dagoela aprobetxatuta. Eskakizunak eta jarduerak daude abian, badago kontzientzia eta azken urteotan gero eta indar handiagoa du. Baina oraindik ere herri mailan indar gehiago jar liteke gauza batzuegatik borrokatzeko, dinamika batzuek indar handiagoa izan beharko lukete. Gerta daitekeena da herriak denbora gehiago behar izatea gertaera gainditzeko eta kontzientzia hartzeko, askok bonbardaketan hil ziren arbasoak dituzte eta. Maila pertsonalean ez naiz sartuko, baina maila kolektiboan eta instituzionalean indar falta somatzen dut. ♦

# Gernika hiria 1937ra itzultzen den eguna

'Gernika Garretan' kale-antzerkia bi urtean behin egiten da, bonbardaketaren egunean, eta biztanleriak hartzen du parte

Bonbardaketa bat, ehunka pertsona hil eta herri bat suntsitu zuena, inoiz ez errepikatzeko moduko gertaera da. Ordea, Gernika herriak bi urtean behin 1937ko apirilaren 26a birsortzen du bere kaleetan antzezlan baten bitartez, bizilagunak protagonista bihurtuta. Aurten berriz ere egin da. Garaiko arropak jantzi, karakterizatu, herria atondu eta bonbardaketaren unea antzezten da, hamaika ikusleren begiradapean. Izan ere, bai turistentzat eta bai euskal herritarrentzat ekimen erakargarria bihurtu da *Gernika Garretan*.

"Dena prestatzea lan handia da", dio Camino Saiz antolatzaileak. Bera Gernika Garretan Kultur Elkarteko presidentea da, antzezlenerako espresuki sortutako elkarte, non Gernika Batzordeko, Arrano Kultur Elkarteko edo Elai-Alaiko kideak dauden, bai eta kide independenteak. Nahiz eta ilusioa handia izan, zailtasunak ere ugariak direla dio Saizek: "Oztopo handiena diru falta da. Kultur Etxearen laguntza dugu, baina ez da nahikoa erosi beharreko material guztiarentzat". Parte-hartzaileak aurkitzea ere "odisea" izaten dela dio antolatzaileak: "Haurrak oso prest daude, baina helduekin, ordea, kostatzen da".

Helduen artean Josune Barrena da antzezleetako bat. Bere aurtengo papera irakaslearena izan da, bonbardaketaren ondorengoko eszena batean. Honetan, haur txikiei eskola ematen ari zaien bitartean, armada sartzen da ikasgelan eta haiek inposatutako irakaslea jartzen dute, bera baztertuz. Barrenak lehenengo urtetik hartu du parte: "Ekimenaren berri izan nuenean, nik horren parte izan behar nuela pentsatu nuen, garrantzitsua da hurrengo belaunaldiak zer gertatu zen jakitea, herriaren historia ezagutzea". Batzar antolatzailean sartu zen baita ere, kide independente gisa. Bereziki haurrekin arduratzen da Barrena, Gernikako eskola batean lan egin eta harreman zuzena duelako haiekin.

"Oztopo handiena diru falta da"

**CAMINO SAIZ**  
**'Gernika Garretan'**  
**Elkarteko presidentea**

"Ekimenaren parte izan behar nuela sentitu nuen"

**JOSUNE BARRENA**  
**'Gernika Garretan'**  
**antzezlenerako aktorea**

## Hastapenak

Antzezlana *Gernika Sutan* izena izan zuen hasiera batean, eta aldaketa batzuk egon dira *Gernika Sutan*-etik *Gernika Garretan*-era arte. Bonbardaketa eszenaratzearen ideia Gernika Batzordearena izan zen, eta hainbat elkarte bildu

ondoren, ideia aurrera eramatea erabaki zuten. Gauzak horrela, Eneritz Artetxe aktore gernikarrarekin jarri ziren harremanetan, eta hau Carlos Panera antzerki zuzendariarekin. Panera izan zen, hain zuzen, antzezlana martxan jarri zuena. "Betidanik izan dut argi antzerkiak herrikoia izan behar duela, esperientzia kultural bizia pertsona guztiarentzat", dio antzerki zuzendariak. Izan ere, Gernikarenaren aurretik antzerki herrikoiak zuzendu izan ditu Lekeition, Mungian eta Bermeon, herriko auziek.

Proposamena eginda, zuzendariak egitasmo bat diseinatu eta aurkeztu zuen. "Doktorego tesi praktikoko baten modukoa izan zen niretzat, dokumentazio izugarria egin behar izan nuen eta gaian aditu bihurtu nintzen", kontatu du Panerak. Ideia argi zuen: antzerki ibiltaria izango zen, bonbardaketaren eszena desberdinak antzeztuko zituen. Gainera, gertaera herriko koruak kontatuko zuen, Gernikan ohikoak diren "marijese"-en bitartez. "Marijeseak" Gabonen aurretik kantatzen diren



Josune Barrena eszena batean. ARG.: Ainhoa Iglesia

bertsoak dira, melodia zehatz bat dutenak. Zuzendariak melodia hori hartu zuen, herriarekin zuen loturagatik, eta hitzak moldatu zituen bonbardaketa kontu zitzaten. Hitzak Edorta Jimenez eta Onintza Enbeita bertsolarien esku utzi zituen.



2011 izan zen *Gernika Sutanen* estreinaldiaren urtea, eta aurreikusi gabeko arrakasta izan zuen. Hurrengo urtean Panerak errepikatu zuen zuzendari moduan, bonbardaketaren 75. urteurrenean. Baina hori izan zen bere azken urtea, udalarekin eta elkarteekin izandako desadostasunak zirela medio. Hortik aurrera, Gernikako elkarte batzuek antzezlanaren mantentzea adostu



Bonbardaketaren eszena. ARG.: Ainhoa Iglesia

“Antzerkiak herrikoia izan behar du”

**CARLOS PANERA**  
**‘Gernika Sutan’-en zuzendaria**

zuten, baina bi urtean behin, urtero egitea lan gehiegi izango zelakoan. Iritzi berekoa da Camino Saiz: “Ezin dugu gure denboraren %100a honetara bideratu, gutariko bakoitzak bere lana eta familia ditu”.

### Aurtengo aldaketak

Urteak aurrera egin ahala, aldaketa txikiak egon dira, baina aurten aldaketa askoz nabarmenagoa eman da: zuzendari artistikoak Doro Zobaran aktorea eta Onintza Enbeita kazetari, bertsolari eta politikaria izan dira. Aldaketarik handiena, bonbardaketaren osteko egunak ere antzeztea izan da. “Inportantea da bonbardaketa-ostea erakustea, sufrimendu handia egon zen ondoren, etxerik eta lantokirik ez zegoenean. Batzuek onura atera bazuten ere haienak ez ziren orubeak hartuz, gehienak sufritu zuen”, azaldu du Josune Barrenak. Aurtengoa, ibiltaria izanda, kokaleku gutxiago izan ditu, lana errazteko asmoz. Partaideak 200 pertsona inguru izan dira. ♦



Goian: Ama alabarekin. Behean: Soldadu naziak eta heriotza. ARG.: Ainhoa Iglesia

## Gernikaren eragina Carlos Paneraren obran

*Gernika Sutan* antzezlanaren sortzailea da Carlos Panera, baina horrez gain, beste bi obra zuzendu ditu gaiaren inguruan bere ekoiztetxearekin. Maskaradarekin, alegia. Aurrenekoa *Gernika HSO (Horario Sobre Objetivo previsto)* 16:30 izan zen, 1987koa. Bigarrenak Picassoren *Guernica* margolanaren enkarguaren ikuspegitik jorratzen zuen bonbardaketa, Parisen. *Picasso 1937, historia del ‘Guernica’* zuen izenburu. Gaiak bere obran izan duen eraginaren aurrean, Panerak honakoa dio: “Askotan egin dut antzerki dokumentala, eta behin gai batean sartzen zarenean, horren inguruko ideia berriak sortzen zaizkizu. Nire azken lanak ere zerikusia du Gernikako bonbardaketarekin”. Izan ere, martxoan Bilboko Azkuna Zentroan estreinatutako *Odiseak 1937-2017* ikuskizunak errefuxiatuen drama jorratzen du bi istorio paraleloren bidez, egungo ume errefuxiatu batena eta 1937ko neskato gernikar batena.

## Bakearen ikur 80 urte geroago

“Gernikak gure memorian jarraitzen du”. Horixe adierazi du George Steer ingelesak, Gernikako bombardaketaren berri eman zuen *Times* egunkariko kazetariaren izen bereko semeak. Bere aitaren eskulturaren egin zaion omenaldia izan da goizeko lehenengo ekitaldia, non Gernikako alkate den Jose Mari Gorroño ere egon da. Honek kazetaritzaren garrantzia azpimarratu du, arazo teknikoak konpondu eta mikroek laga diotenean. Omenaldia ikusten, nazioarteko ordezkariak. Roland Methling, esaterako, Rostock hiri alemaniarreko alkatea da, Gernika bonbardatu zuten lehergailu eta hegazkinak ekoitzi zituen hiria. “Garrantzitsua da gu hemen egotea gaur, eraso gaitzesteko eta elkartasuna adierazteko”, azaldu du.

Euria goian behean ari zenez, Bakearen eta Berradiskidetzaren Aldeko XIII. Gernika sari banaketa ikusteko Lizeo Antzokian sartzea eskertu dute biztanleek. Lehenengo sariduna Gervasio Sanchez argazkilaria izan da, gerran espezializatua. Gerraren inguruko hausnarketa egin du: “Gerrak ez dituzte munstroek egiten, gerrak gu bezalako gizakiek egiten dituzte”. Beste bi sariak Kolonbiara joan dira. Aipatu herrialdeko presidente Juan Manuel Santosek eta Rodrigo Londoño Echeverri *Timoxenko* FARCeke buruak bereganatu dituzte. Agenda kontuengatik lehena, eta bidaiatzeko baimena eskuratu ezin izanagatik bigarrena, ez dira bertaratu. Presidentearen saria Sergio Jaramillo Kolonbiako Bakerako Goi Mandatariak jaso du, eta aipatzekoa da Mariano Rajoy Espainiako presidenteari egindako aipamena. Eskerrak eman dizkio Kolonbiako bake prozesuari emandako babesagatik, eta publikoaren artean barreak entzun dira. Harmailan denetarik zegoen: Nagasakiko tragediatik bizirik irten ziren japoniarrak, Kolonbiatik etorritakoak, eta baita bertako herritarrak ere. Marian Olea Retolazak, esaterako,

ekitaldi honetan egon beharra zeukala sentitu du: “Nire osaba bombardaketan hil zen, eta horrez gain, familia osoak errepublikar izateagatik ondorioak pairatu zituen”. Une batzuetan astun egin den sari banaketari entretenimenduzko ukitua eman diote Kukai dantza taldeko ikuskizunak eta amaierako ohorezko aurrekuak.

Arratsaldeko laurak laurden gutxi bombardaketaren ordu zehatza izan zen 1937an, eta sirenekin eta kanpai hotsekin ohartarazi zuten jendea. Soinu berak errepikatu dira aurten ere, baina oraingoan, korrika hasi baino, geldi-geldi eta isilik geratu dira Gernikako biztanleak. Sirenari eragitearen arduradunak Kondor Legioko soldaduen ilobak izan dira, haien familien damua adierazi dutenak, eta “eragindako sufrimendu eta heriotzekiko lotsa eta tristura” adierazi dute. Lau minutuko isilunea gorde duten biztanleen artean, begi distiratsuak izan dira nagusi, eta malkotan urtu denik ere izan da.

Zallo hilerriko elizkizuna eta lore eskaintza izan da ondorengoa, Iñigo Urkullu eta Idoia Mendia bertaratu dira, lore eskaintza egiteko. Baina ez dira protagonista izan, txalotuenak honako hiru lore eskaintzak izan baitira: George Steer semearena, eta bai Nagasakitik eta bai Gernikako bombardaketatik bizirik atera zirenenak. Azken hauetarik batek, Luis Iriondok, sufrimendua bakearen aldeko borroka bihurtzearen garrantziaz jardun du, nabarmen hunkituta.

Euriak menia eman duenean, *Gernika Garretan* antzezlanari eman zaio hasiera. Eta hau bukatzean, jada gaua zela, kandelen argiak egunarenak ordeztu du. Manifestazio isila egin da kandlekin. Karmelo Landaren hitzek eman diote hasiera Foru Plazatik abiatu den martxari. Egunari, bombardaketaren 80. urteurrenari, *Eusko Gudariak* kantarekin eman diote amaiera Gernikako biztanleek. ♦



Goitik behera: Lore eskaintza G. Steerren eskulturari, George Steer semea, Bakearen eta Berradiskidetzaren saridunak, Nagasakiko bombardaketa atomikotik bizirik irten ziren bi japoniar, Luis Iriondo eta bombardaketatik bizirik atera zen beste emakume bat. ARGAZKIAK: AINHOA IGLESIA